



EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 17koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan parte hartuko duten Epaimahaien egoitzak zein lurralde historikotan kokatuko diren zehazten dituen (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez deitu zen).

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 12ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin zen.

Aipatutako Aginduaren 5.2.2 oinarrian xedatutakoaren arabera, eta Epaimahaietako kideek zozketatu aurretik, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez erabakiko da zein lurralde historikotan kokatuko diren espezialitate bakoitzeko epaimahaien egoitzak.

Horregatik,

EBAZTEN DUT

1.– Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko espezialitate bakoitzeko Epaimahaien egoitzak hurrengo lurralde historikoetan kokatuko dira:

Espezialitatea	Lurralde Historikoa
Arte Grafikoetako produkzioa	Bizkaia
Sukaldaritza eta Gozogintza	Bizkaia
Jatetze-arloko zerbitzuak	Bizkaia
Patroigintza eta Jantzigintza	Bizkaia
Estetika	Bizkaia
Ile-apainketa	Bizkaia
Ibilgailuen mantentze-lanak	Gipuzkoa
Zurgintzako eta altzarien fabrikazioa eta instalazioa	Gipuzkoa
Makinen mekanizazioa eta mantentzea	Gipuzkoa
Soldadura	Gipuzkoa

2.– Argitara ematea ebazpen hau Hezkuntza Saileko honako Interneteko helbideetan:

– <https://hezigunea.euskadi.eus/> («erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua» – «Berriak»

– <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-lanagileak/> – «EPE2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua» – «Epaimahaiak eta hautaketa-batzordeak».

4.– Interesatuak gorako errekurtsoa jarri ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 17an.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO